

MESPREZUAREN SAMINA

Bidatz Badiola Imaz, 16 urte

Ataun

Agure baten bizitza aspergarria dela esan ohi dute, baina nire burutik ze pentsamendu igarotzen diren inork ezin lezake imajinatu ere egin. Nik ere nire arrazoiak dauzkat gauzak sentitzen ditudan bezala sentitzeko. Herri guztiak uste du erotuta nagoela, eta okerrena da nire familiak ere halaxe pentsatzen duela, biloba txikiak izan ezik. Hau bere aitonarekin oso harro dagoela dirudi, nahiz eta harro egoteko motibo gutxien berak daukan. Izan ere, nire alabak ez dio uzten niregana etortzen. Erru guztia nire alabaren senar madarikatu horrena da. Ezagutu nuen lehenengo egunetik sumatu nuen zein zen bere asmoa, baina nire alabaren gustukoa zenez, onartu beharra izan nuen. Niretzat zaila izan arren, berarekin ondo konponzen saiatzen nintzen beti, egun batean lehertu nintzen arte.

Txomin duela bost urte ezagutu nuen. Nire alabaren bigarren senarra zen. Izan ere, aurrekoa, nire bilobaren aita, gaixotasun larri batek jota hil zen soldaduskan. Hura bai gizon umil eta zintzoa. Nire barnea saminez estalita utzi ondoren joan zen beste mundura. Orduan, alabak beste gizon batekin harremanak zituela enteratu nintzenean, ez zidan batere graziarik egin baina ziur nengoen gizon umila eta zintzoa izango zela. Egia esan, gure adineko aitona-amonentzat ez da batere atsegina zure umeak bigarren lagun bat aukeratzea. Gehienbat, pentsatzen baitugu, aurrekoa mesprezatzeko modu bat dela eta herriko jendeak esango duenaz ere kezkatzen baikara.

Minez bete zitzaidan gorputza eta ez nuen nire suiari tokia kendu zion gizon hura ezagutu nahi, nahiz eta jakin aurrekoa bezain ona izango zela, baina oker nengoen. Alabak hainbestetan errepi-katzen zidanez ezagutu beharrean nengoela, nire urtebetetze egunean gonbidatu nituen bazkaltzera, eta gainera berak merezi baino bazkari goxoa goa prestatu nien. Agian pentsatuko duzue harroputz xamarra naizela, baina egia esan, nahiko poliki moldatzen naiz sukaldean, eta berak ez zuen inola ere horrelakorik merezi.

Eguerdiko ordubiak eta erdiak aldera etorri ziren. Niretzako oso berandu da hori izan ere normalean hamabiak eta erdiak aldera bazkaltzen dut eta siestara joaten naiz. Esker txarreko gizon ipurzuri haren erruz egun bateko loalditxoa galdu nuen. Hor etorri zen lepoa tente-tente zuela bere

eskubiko eskuarekin bigote luze iletsu hura laztanduz. Barre faltsu itsusi bat eskaini zidan eta nik berdina itzuli nion. Bazkaltzerako, alabak bere senargaiari etxea erakuts niezaion eskatu zidan.

Nire logela erakutsi nion lehendabizi eta beti ere bere bigote nazkagarri hari eskurik kendu gabe zera esan zuen:

Logela honetan usaindu daitekeen ambientadore hau supermerkatuan ikusi nuen aurreko egunean, merkealdian zegoen gainera. Niri ez zait horrelako lekuetan erostea gustatzen. Usain gozoa baino gehiago, kiratsa eragiten dutela iruditzen zait. Jajaja! –berriro ere barre faltsuarekin– Ziur nago nire mania bat dela! jajajaja! Nik normalean hiriko denda oso garesti batean erosten dut, baina ulertzekoa da zure kasua ere, izan ere, zuk kobratzen duzun pentsionista soldata ez da ikaragarria izango.– Erabat sumindu ninduen esan zidanak baina haserretzeko goizegi zela iruditu zitzaidan eta gogorik gabeko barrea egin nuen eta sukaldera itzuli ginen, alaba eta biloba zeuden tokira hain zuzen.

Bazkarian zehar orain gogoan ez ditudan hainbat gauza esan zituen nire gustukoak ez zirenak. Nire alaba, ordea, erabat zoriontsu ikusten nuen basapiztia haren ondoan.

Handik aurrera sarritan etortzen ziren etxera otorduren bat egitera. Atsegina izaten saiatzen nintzen baina ezinezkoa egiten zitzaidan faltsukeriatan ibiltzea. Alabaren aurrean oso atsegina izaten zen nirekin, baina hau komunera joaten zene-

an edo, besterik gabe, bakarrik geratzen ginenean nirekin sartzen hasten zen, zaharra nintzela eta alabak komeni zitzaiolako jotzen zuela niregana esanez. Hasiera batean ezer ez esatea pentsatu nuen, baina ezin nuen jasan, beraz, egun batean alabari komentatzea pentsatu nuen:

“ezagutu zenuen lehenengo egunetik konturatu nintzen ez zela zure gogokoa baina nik maite dut eta ez dut zuregatik utziko”.

Izugarrizko haserrealdia izan genuen eta azkenean nirekin ez kontatzeko esan nion. Gero damutu egin nintzen baina beranduegi zen. Hasiera batean, nahiz eta haserre egon, bisitatzera etortzen zitzaidan aldian behin, baina egun batetik bestera etortzeari utzi zion. Gure harremana ez zegoen momenturik onenean, baina pixka bat harritu ninduen alabaren jokaera hark. Deitu eta berak edo bere senargai hinguigarri hark hartzen bazuen telefonoa, eskegi egiten zidaten ezer esan baino lehen, eta Mikelek, nire bilobak, hartzen bazuen, berriz, nire alabaren presentzia sumatzen nuen bere ondoan eta ez zioten nirekin hitz egiten uzten.

Behin ere ez naiz izan kaleko gizona, baina ogia eroatera joaten nintzen apurretan, jendeak modu arraro batez begiratzen zidala iruditzen zitzaidan. Hasiera batean, nire irudipena izango zela pentsatzen nuen, baina begirada zorrotzak eta laguntzat nuen jendearen mesprezuak areagotuz joan ziren. Ez nuen ezer ulertzen, baina bizimodu normala

eginez jarraitzea erabaki nuen, alabaren ustekabe-ko bisita bat izan nuen arte. Berebizikoak eta bi esan zizkidan. Ez nekien zertaz ari zen, baina denbora pasatu ahala konturatuz joan nintzen. Zorigaiztoko gizon hark ez ziren gauzak zabaldu zituen herrian. Arratsalde batean ubelduraz beteta iritsi omen zen etxera eta nire alabari, ubeldura haiek nik eginak zirela esan omen zion. Gezur hura herri osoan zabaldu zuen ondoren, horrela jendeak erotuta nengoela pentsa zezan. Herri guztiari sinestarazi zion nik jipoitu nuela. Nire alaba gaixoak ez zidan sinetsi, ordea, eta nire etxetik alde egin zuen, bere aitarengandik horrelakorik ez zuela espero esanez.

Nik bizitza normala egiteari ekin nion, oso zaila izan arren. Izan ere, ez da erreza jendearen begirada gaizto eta mesprezuen artean bizirautea. Hala ere gizon gogorra naizen aldetik, bizi txar honetara ohitu nintzen. Penarik handiena bilobak ematen zidan, berak niregana etortzeko edo deitzeko ahalegin guztiak egiten baitzituen.

Hilabete gutxi batzuk igaro ondoren, zaharretxe batean sartu ninduten nire antzeko beste aitona-amonak batzuekin batera. Bizi hartara ohitzea gehiago kostatu zitzaidan. Nire emazte kottadua hil zenetik, nire burua zaintzera eta bakarrik bizi-terera ohitua nengoen, hau da, independente izatera, eta han dena erizainen laguntzaz egiten nuen, baita dutxatu ere.

Urtebete egon nintzen inoren berririk eta bisitarik gabe. Denboraldi hau igaro zenean alabaren

eskutitz ironiko bat jaso nuen, barnean berri pozgarri bat zekarrena. Azken urteetan nire amets txarren protagonista izan zen kalamidade hark istripu bat izan zuen, eta instante hartan bertan hil omen zen. Heriotza baten ondoren, poza eta alaitasuna sumatzen nuen lehenengo aldia izan zen hura. Ulertzen ez nuena zera zen: zergatik eman zidan nire alabak heriotz haren berri? Agian, aspaldiko partez poztasun bat eman nahiko zidan eta lortu zuen, dudarik gabe.

Oraindik zaharretxe honetan jarraitzen dut. Harrezkeroztik ez dut inoren berririk izan, baina seguru nago sarritan gogoratuko direla nitaz, one-rako ez bada txarrerako. Txominen heriotza jainkoak ezarritako zigor bat izan zela ziur nago. Espero dut jendea egunen batean konturatuko dela guztiaz. Okerrena da, ordurako beranduegi izango dela.